

██████████ | ██████████ jaunak eskatutako informazio publikoa eskuratzeko baimena ukatzen duen Ogasuneko zuzendarî nagusiaren ebazpena (SAIP 2023- 025).

Resolución del director general de Hacienda, por la que se deniega el acceso a la información pública solicitado por ██████████ ██████████ (SAIP 2023-025).

AURREKARIAK

BAKARRA.- Ogasuneko Zuzendaritza Nagusi honetan informazio publikoa ikusteko eskaera jaso zen 2023ko apirilaren 19an, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauan aurreikusitakoaren babespean. Honako hauek dira eskaera horren datuak eta edukia:

-Interesduna: ██████████
██████████

- Jakinarazpenetarako helbidea: - Helbide elektronikoa: ██████████.

- Eskaera-data: 2023-04-12.

- Erregistro-data: 2023-04-18.

- Eskaeraren edukia: BEZaren aitortenaren mikrodatuetarako sarbidea .CSV formatuan edo antzeko beste formaturen batean. Zehazki, interesdunak mikrodatuetarako sarbidea eskatu du, honako hauei dagokienez: a) BEZaren aitortpena (303 eredu) eta b) euskal ogasunerako erregistro liburuak edo antzekoak. Hori guztia enpresen balio-kateei buruzko ikerketa-proiektu bat egiteko, enpresen arteko salerosketa loturen bidez.

OINARRI JURIDIKOAK

LEHENENGOA.- Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauak 18. artikuluan onesten du informazio publikoa eskuratzeko pertsona fisiko eta juridikoen eskubidea. Foru Arau bereko 17.2 artikulua

ANTECEDENTES

ÚNICO.- Con fecha 19 de abril de 2023, se ha recibido en esta Dirección General de Hacienda solicitud de acceso a información pública al amparo de lo previsto en la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, cuyos datos y contenido son los siguientes:

-Persona interesada: ██████████
██████████

-Domicilio a efectos de notificaciones: Dirección de correo electrónico: ██████████

-Fecha de la solicitud: 12-04-2023.

-Fecha de registro: 18-04-2023.

-Contenido de la solicitud: Acceso a microdatos de la declaración del IVA en formato .CSV o similar. En concreto, la persona interesada solicita acceso a los microdatos correspondientes a: a) declaración del IVA (Modelo 303), y b) libros de registro u homólogos para la hacienda vasca. Todo ello, con objeto de llevar a cabo un proyecto de investigación acerca de las cadenas de valor empresarial mediante vínculos compra-venta entre empresas.

FUNDAMENTOS JURÍDICOS

PRIMERO.- El artículo 18 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, reconoce el derecho de las personas físicas y jurídicas a acceder a la información pública, entendida ésta, según lo indicado en el



xedatutakoaren arabera, informazio publikoa da erakundeak bere aplikazio-eremuan duen edozein eduki- edo dokumentu-mota, erabilitako euskarria gorabehera, baldin eta haien funtzioak betetzeko egin, aldatu edo eskuratu badute.

BIGARRENA.- Hala eta guztiz ere, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren hirugarren xedapen gehigarrian honako hau zehazten da:

“Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onaturiko Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 41. artikuluan eta maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onaturiko Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitakoaren arabera, foru arau honetan ezarritakoa ez da aplikagarria izango Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzean lortutako datuei, txostenei edo aurrekarietarako dagokienez; horiek Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauan eta horren garapen-xedapenetan ezarritakoaren arabera arautuko dira”.

HIRUGARRENA.- Gaiari eutsiz, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorren 94. artikuluan Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzean lortutako datuak, txostenak edo aurrekariak isilpekoak direla ezartzen da. Datu, txosten edo aurrekari horiek, kudeatu beharreko zerga edo baliabideak ezartzeko eta dagozkion zehapenak jartzeko baino ezin dira erabili, eta ezin zaizkie hirugarrenei laga edo jakinarazi, salbu eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorren 94 bis eta 94 ter artikuluetan jasotako tasaturiko kasuetan.

artículo 17.2 de dicha Norma Foral, como cualquier tipo de contenido o documento, independientemente del soporte que se utilice, que obre en poder de las entidades previstas en su ámbito de aplicación y que haya sido elaborado, modificado o adquirido por ellas en el ejercicio de sus funciones.

SEGUNDO.- No obstante lo anterior, la disposición adicional tercera de la citada Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, concreta que:

“De conformidad con lo previsto en el artículo 41 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, aprobado por medio de la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, y en el Concerto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por medio de la Ley 12/2002, de 23 de mayo, lo dispuesto en esta Norma Foral no será aplicable en relación con los datos, informes o antecedentes obtenidos por la Administración tributaria en el desempeño de sus funciones que se regirán por lo dispuesto en la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia y en sus disposiciones de desarrollo”.

TERCERO.- A este respecto, el artículo 94 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, establece el carácter reservado de los datos, informes o antecedentes obtenidos por la Administración tributaria en el desempeño de sus funciones, los cuales únicamente pueden ser utilizados para la efectiva aplicación de los tributos o recursos cuya gestión tenga encomendada y para la imposición de las sanciones que procedan, sin que puedan ser cedidos o comunicados a terceros, salvo en los supuestos tasados recogidos en dicho artículo, y en los artículos 94 bis y 94 ter de la misma Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia.



Aipatutako salbuespenetako bat, martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 94.1 k) artikuluan aipatutakoa, datuak estatistika-helburuetarako erabiltzeari buruzkoa da. Hala ere, berariaz adierazten du “Estatistika gaietan eskumena duten administrazio publikoek datuak erabiltzea estatistika lanetan, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legeak eman dizkien eginkizunak betetzeko.” Horrez gain, zera xedatzen du: “Informazio eskaerak zerga datuak lagatzea beharrezkoa den estatistika lanaren helburu zehatzak justifikatu beharko ditu” eta “datuok, beti ere, multzoka erabili behar dira azterlanetan eta ezin dira gorde norbanakoen arabera berezita”.

LAUGARRENA.- Bestalde, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauak, publizitate aktiboari buruzkoak, 3. artikuluan ezartzen duenez, haren aplikazio-eremuari lotutako erakundeek nahitaez bete behar dituzte arau horretan jasotako eskakizunak, eta herritarren interesekoa den eta gobernuaren jarduna eta haren administrazio-ekintza modu eraginkorrean aztertzeko baliagarria izan daitekeen edozein informazio publiko garrantzitsu argitaratu behar dute, bidezkoak diren bideetatik.

Ildo horretatik, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 8. artikulua, eduki ekonomiko-finantzarioa daukan informazioari buruzkoak, zera xedatzen du:

“1. Titulu honen aplikazio-eremuan sartuta dauden erakundeek eduki ekonomiko-finantzarioa duen informazioa argitaratu beharko dute, artikulua honetan ezarritako baldintzetan.

2. Hau da argitaratu behar den informazio ekonomiko-finantzarioa: (...)

Una de las salvedades mencionadas, la citada en el artículo 94.1 k) de dicha Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, hace referencia a la utilización de los datos para fines estadísticos. Sin embargo, alude específicamente a “las Administraciones públicas competentes en materia estadística para el cumplimiento de las funciones que les atribuye la Ley 4/1986, de 23 de abril, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi”. A lo que, además, añade que “La solicitud de información deberá justificar las finalidades concretas del trabajo estadístico para el que se requiere la cesión de los datos tributarios” y que “Estos datos serán utilizados, en todo caso, para la elaboración de informes de datos agregados y no podrán ser almacenados de forma individualizada”.

CUARTO.- Por otro lado, el artículo 3 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, relativo a la publicidad activa, establece que las entidades sujetas al ámbito de aplicación de la misma están obligadas a cumplir las exigencias contenidas en ella y a publicar, por los cauces que procedan, cualquier información pública relevante que sea de interés ciudadano y pueda ser útil para llevar a cabo un escrutinio eficiente de la acción de gobierno y de su acción administrativa.

A este respecto, el artículo 8 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, relativo a la información de contenido económico-financiero, determina que:

“1. Las entidades incluidas en el ámbito de aplicación del presente Título deberán hacer pública la información de contenido económico-financiero, en los términos establecidos en el presente artículo.

2. La información económico-financiera que se debe hacer pública será la siguiente: (...)



d) Tributu itunduei buruzko informazioa, bereziki bide horretatik lortutako sarrera fiskalak eta tributu bakoitzari dagokion portzentajea. Azken urteetan sarrerek izan duten bilakaera ere argitaratu beharko da. (...)”.

Arau horiek eta publizitate aktiboaren printzipioak aplikatuz, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak Bizkaiko Foru Ogasunaren Urteko Memoria bat argitaratu du, erakundeei eta herritarrei lortutako emaitzei eta zergen arloan egindako jardueri buruzko informazio zabala eta sistematikoa helarazteko. Bertan, urte bakoitzean egindako kudeaketa- eta likidazio-prozesuei buruzko informazio zehatza jasotzen da.

Zehazki, aipatutako urteko memoriek balio erantsiaren gaineko zergari buruzko informazioa jasotzen dute, bai eta zerga horren estatistika-eranskin bat ere.

BOSGARRENA.- Hori dela eta, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 22. artikulua a) letrak aurreikusten du ez direla izapidetzeko onartuko prestatzen edo argitaratzen ari diren informazioari buruzko eskaerak.

Gainera, 22. artikulua c) letrak adierazten du ez direla izapidetzeko onartuko informazio publikoa eskuratzeko eskaerak, baldin eta informazio hori zabaltzeko aurretiazko ekintza bat edo berregiteko prozesu bat behar bada. Baldintza hori betetzen dela ulertuko da eskatutako informazioa erantzun bat emateko espresuki sortu edo landu behar denean, hainbat informazio-iturriren bidez, edo informazio hori ateratzeko eta ustiatzeko beharrezko baliabide teknikorik ez dagoenean; izan ere,

d) Información tributaria relativa a los tributos concertados, en especial ingresos fiscales por esta vía y porcentaje en función de cada tributo, así como la evolución de los ingresos en los últimos años. (...)”.

En aplicación de estas reglas y de estos principios de publicidad activa, el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia publica una Memoria Anual de la Hacienda Foral de Bizkaia, con el fin de hacer llegar a las instituciones y a los ciudadanos una información amplia y sistemática de los resultados alcanzados y de las actuaciones desarrolladas en el ámbito tributario, en la que se recoge información detallada sobre los procesos de gestión y de liquidación llevados a cabo durante cada año.

Concretamente, las citadas Memorias Anuales contienen información relativa al Impuesto sobre el Valor Añadido, así como un anexo estadístico de dicho Impuesto.

QUINTO.- Por este motivo, la letra a) del artículo 22 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, prevé que se pueden inadmitir a trámite las solicitudes relativas a la información que esté en curso de elaboración o de publicación en general.

Además, la letra c) del mismo artículo 22 señala que también cabe inadmitir a trámite las solicitudes de acceso a información pública cuya divulgación requiera una acción previa o un proceso de reelaboración, entendiéndose que se da esta condición cuando la información solicitada tenga que ser producida o elaborada expresamente para dar una respuesta, mediante el uso de distintas fuentes de información, o cuando se carezca de los medios técnicos necesarios para extraer y explotar dicha información, toda vez que no estamos ante un



Administrazioak, partikularrek eskatuta, ez du txostenak egiteko eskubiderik.

SEIGARRENA.- Planteatutako kasuan, interesdunak izaera erreserbatuko zerga-informazioa eskatu du, baina eskaera hori ez dago Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorren 94.1 artikuluan aipatzen diren kasuetako batean ere. Horri dagokionez, Administrazio honek publizitate aktiboaren arloan dituen betebeharrak betetzen ditu Bizkaiko Foru Ogasunaren Urteko Memoriak argitaratuz.

Hori guztia dela eta, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauan ezarri dena betez eta Zuzendaritza Nagusi honi dagozkion eskumenak baliatuz

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA.- EZESTEA informazio publikoa eskuratzeko [REDACTED] jaunaren [REDACTED] 2023ko apirilaren 19ko eskaera.

BIGARRENA.- Interesdunari Bizkaiko Foru Ogasunak argitaratutako memoriak eta txostenak bidaltzea, esteka honen bidez eskuratu daitezkeenak:

<https://www.bizkaia.eus/eu/txostenak-eta-memoriak?Tem Plid=5307333>

HIRUGARRENA.- Ebazpen hau interesdunari JAKINARAZTEA, bai eta Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusiari eta gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordeari ere.

derecho a la elaboración de informes por parte de la Administración a petición de los particulares.

SEXTO.- En el supuesto planteado, el interesado solicita acceso a información tributaria de carácter reservado, sin encontrarse en ninguno de los supuestos a los que se refiere el artículo 94.1 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, en relación con la cual, esta Administración cumple sus obligaciones en materia de publicidad activa a través de la publicación de las Memorias Anuales de la Hacienda Foral de Bizkaia.

Por todo ello, en cumplimiento de lo previsto en la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, y en el ejercicio de las facultades que corresponden a esta Dirección General

RESUELVO

PRIMERO.- DENEGAR la solicitud de acceso a la información pública presentada por [REDACTED] el pasado 19 de abril de 2023.

SEGUNDO.- Remitir a la persona interesada a las memorias e informes publicados por la Hacienda Foral de Bizkaia, accesibles a través del siguiente enlace:

<https://www.bizkaia.eus/es/informes-y-memorias?Tem Plid=5307333>

TERCERO.- NOTIFICAR la presente resolución a la persona interesada, comunicando la misma a la Dirección General de Buen Gobierno y Transparencia y a la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia.



LAUGARRENA.- Ebazpen honen aurka erreklamazioa jar daiteke Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunari buruzko gaietako Batzordean, ebazpena jaso eta biharamunaz geroko hilabeteko (1) epearen barruan, otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 24.5 artikuluan xedatzen denaren arabera. Hala ere, aurreko guztia ez da eragozpen izango interesatuak bere eskubideak defendatzeko egoki ikusten duen beste edozein ekintza edo errekurtsio aurkezteko.

CUARTO.- Contra la presente resolución podrá interponerse reclamación ante la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, en el plazo de un (1) mes, con arreglo a lo establecido en el artículo 24.5 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, o bien directamente recurso Contencioso-Administrativo en el plazo de dos (2) meses ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en ambos casos a partir del día siguiente a su recepción.

Sin./Fdo.: IÑAKI ALONSO ARCE 2023-05-03
OGASUNEKO ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR GENERAL DE HACIENDA

Akordioa/Acuerdo: R1 00250/2023 - Data/Fecha: 2023-05-03
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2023-05-03